

**II. ATALA**  
**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bermeoko Udala****2022. urterako ordenantza fiskalen aldaketaren behin-behineko onespena**

Bermeoko Udalaren Osoko Bilkurak, 2021eko uztailaren 30ean egindako bileran, behin-behinean onartu ditu 2022. urterako hurrengo Ordenantza Fiskalen aldaketak:

- a) Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantza fiskala onartzea eta bertan behera uztea indarrean dauden okupazioa tasen ordenantza fiskal guztiak.
- b) Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergaren ordenantza fiskala.
- c) Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ordenantza fiskala.
- d) Hornitzaileen aprobetxamendu bereziaren tasaren ordenantza fiskala.
- e) Hilerriko zerbitzuen tasaren ordenantza fiskala.
- f) Sastar-batze zerbitzuaren tasa arautzen duen ordenantza fiskala.
- g) Agiriak emateagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen ordenantza fiskala.
- h) Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga arautzen duen ordenantza fiskala.

Hartutako erabakiak eta izapidetutako espedienteak jendaurrean jartzen dira, abenduaren 16ko 09/2005 Foru-Araua, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunei buruzkoak bere 16. artikuluan ezarritakoa betetzeko. Iragarkia hedabide ofizial honetan eta Udaletxeko iragarki-oholean jarriko da baldintza hauetan:

- a) Erabakiak eta espedienteak ikusteko tokia: Ekonomia Saila.
- b) Espedienteak aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: 30 lan-egun, iragarki hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.
- c) Honako hauek jar ditzakete erreklamazioak: 09/2005 Foru-Arauaren 17. artikuluan aipatzen diren interesatuek.
- d) Aurkezteko bulegoa: Udaletxeko Erregistro Orokorrean (Berh@z bulegoa) edota Administrazio Jardunbideari buruzko Legeak 66. artikuluan jartzen dituen lekuetan.
- e) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Osoko Bilkura.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazioa edo oharpenik jaso gabe, ordenantzan aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin-betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Bermeon, 2021eko abuztuen 2an.—Alkatea, Aritz Abaroa Cantauriense